**EZ OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO**

**2019KO MARTXOAREN 20AN / 20 DE MARZO DE 2019**

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

| | |
|---|---|
| | **ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE**<br><br>D. Miguel de los Toyos Nazábal jauna (PSE-EE).<br><br>**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**<br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna (PSE-EE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna (PSE-EE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea (PSE-EE).<br>D. Arcadio Benítez Dávila jauna (PSE-EE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna (PSE-EE).<br>D. Jon Iraola Iriondo jauna. (PSE-EE). |
| **IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**<br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna | **ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**<br><br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Josu Cristobal Churruca jauna (Euskal Herria Bildu).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Iñaki Penedo Eubieta jauna (Euskal Herria Bildu).<br>D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Elena Ibañez Anucibay andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta andrea (Irabazi) |

Eibarko hirian, 2019ko martxoaren 20an, eguerdiko ordu bata era erdiak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ez ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Idoya Sarasqueta Aramburu eta Eva Juez Garmendia andreek justifikatu dute bere absentzia.

En la Ciudad de Eibar, a 20 de marzo de 2019 y siendo las trece horas treinta minutos, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as, habiendo justificado su ausencia Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu y Dña. Eva Juez Garmendia.

Alkate-udalburu jaunak bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El Sr. Alcalde-Presidente declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente orden

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**PUNTO UNICO**

**PUNTO UNICO**

**Errebali buruzko Informazio Batzorde Berezia eratzea.**

**Creación de la Comisión Informativa Especial sobre Errebal.**

**Errasti Bernedo jaunak** azpimarratu du ia hilabete igaro dela Errebali buruzko Informazio Batzorde Berezia eratzeko, eta, beraz, bakarrik geratuko litzateke lanean hastea. Adierazi du ez dituela aurreko bilkuraren argudioak errepikatu nahi,

El **Sr. Errasti Bernedo** destaca que ha transcurrido casi un mes para constituir la Comisión Informativa Especial de Errebal y, por tanto, únicamente restaría que comenzasen sus trabajos. Afirma que no desea repetir argumentos de la

baina bai hainbat puntu nabarmendu. Hala, bere udal taldea erabat sinetsita dago Informazio Batzorde Berezi hau eratzeak argi pixka bat ekarriko duela eta batez ere gardentasuna, Errebalean bi hamarkadatan egindako gestioaren gainean.

anterior sesión plenaria, pero sí enfatizar ciertos puntos. Así, su grupo municipal entiende firmemente que la creación de esta Comisión Especial de Investigación arrojará algo de luz y sobre todo, transparencia, sobre la gestión de dos décadas llevada con Errebal.

Esan zuen aurreko Osoko bilkuran Errebalgo gunearen kudeaketatik eratorritako gastuak ezin ugariagoak direla, batzuk jarraitzen errazagoak, zeharkakoak, ostera, ez hainbeste.

Ya comentó en dicho Pleno que los gastos derivados de la gestión del espacio Errebal son innumerables, algunos más sencillos de seguir, los indirectos, no tanto.

Nabarmentzen du gastuen kontrol honen inguruan idazkari jaunak egin duen oharra, Batzordeak ez dituelako egingo Kontu-hartzailetza lanak, hartutako erabaki politikoen egokitasuna baloratzera mugatuko baitu bere lana. Hori horrela da, izan ere, bere iritziz, 20 urte asko dira eta aldi horretan zehar PSE-EE udal taldeak hainbat alderdirekin gobernatu du. Beraz, talde bakoitzari bere erantzukizuna onartzea egokituko zaio.

Destaca el apunte que realiza el Sr. Secretario sobre este control de gastos, ya que la Comisión no se dedicará a labores de Intervención, sino que limitará su actuación a la valoración de la oportunidad de las decisiones políticas adoptadas. Ello es así porque, en su opinión, 20 años es un período extenso a lo largo de los cuales el grupo municipal del PSE-EE ha gobernado con diferentes partidos. Por tanto, a cada uno le corresponderá asumir su responsabilidad.

Oso interesgarritzat jotzen du organo hau sortzea eta argitu ahal izatea zergatik hartzen den erabaki bat eta ez beste bat, zer babes dagoen,

Considera muy interesante la creación de este órgano y poder aclarar por qué se toma una decisión y no otra, con qué respaldo cuenta, o

edo zeinek proposatzen dituen alternatibak. Euskal Herri Bildu udal taldeak uste du azken txostenak gaiari buruzko gastu eta erabaki guztiak jaso beharko dituela.

Halaber, balioan jarri nahi du ezen egia izanik ere Errebal Plataformako ordezkariak ez direla izango Batzorde horren eskubide osoko kide, gaur ahalik eta irekien eta publikoen izango den organo bat eratuko da, parte-hartze handiena errazteko; hau da, eskubide osoko kide antzekoak izango dira, baina egiaz izan barik.

Idazkari jaunaren txostenetik nabarmendu nahi duen beste alderdi bat da bai udal langileek bai oraingo udalbatzarkideek Ikerketa Batzordean agertzeko obligazioa dutela; eta, hala ere, gaur egun Udalbatzaren kide ez diren pertsonek ez dute deklaratzeko lege-obligazio hori, beste kontu bat da obligazio moralik ez edukitzea. Horregatik, bere taldeak eskatuko du Iñaki Arriola Lopez jaunaren agerraldia.

Azkenik, adierazi du ez duela uste Batzordeak bere lana eta txostena

quiénes aportan alternativas. Desde el grupo municipal de Euskal Herria Bildu entienden que el informe final deberá incluir todos los gastos y decisiones relativas a este asunto.

También pone en valor que, si bien es cierto que los y las representantes de la Plataforma Errebal no serán miembros de pleno derecho de dicha Comisión, en el día de hoy se crea un órgano lo más abierto posible y público, para facilitar al máximo su participación, esto es, lo más parecido a ser miembros, pero sin serlo del todo.

Otro aspecto que destaca del informe del Sr. Secretario es que, tanto el personal municipal, como los y las actuales miembros de la Corporación tienen obligación de comparecer ante la Comisión de Investigación y, sin embargo, las personas que actualmente no forman parte de la misma, no tienen dicha obligación legal de acudir a declarar, pero cosa bien distinta es que no exista obligación moral. Por esta razón, su grupo solicitará la comparecencia de D. Iñaki Arriola López.

Para finalizar, expresa sus múltiples dudas sobre que la

amaitu ahal izango duenik maiatzaren 26a baino lehen, asko direlako aztertu behar diren dokumentu eta erabakiak; denbora behar da kontuaren mamiraino iristeko eta azken bi hamarkadetako gestioaren argazki bat lortzeko. Nolanahi ere, hemendik aurrera bere taldeak hitz ematen du eginahalak egingo dituela txostena egun hori baino lehen egin dadin.

Comisión pueda finalizar su trabajo y un informe con anterioridad al 26 de mayo, dado que es mucha la documentación y las decisiones que habrá que analizar; para llegar al fondo del asunto y obtener una foto fidedigna de la gestión de estas dos últimas décadas se requiere tiempo. No obstante, desde este momento su grupo se compromete a poner toda la carne en el asador para que el informe pueda ser emitido antes de esa fecha.

**Mendicute Rodríguez jaunak**, udaberriaren harira, aipatu du Errebaleko proiektuak zeharkatu duen negu luzea eta gogorarazi du, agintaldi honen hasieran, hirigintza-antolaketa aldatzea bozkatu zenean eraikin berria egiteko, EAJ-PNV udal taldeak "historia amaiezina" aipatu zuen. Dena den, toki hauteskundeak gainean ditugula, historiak hortxe jarraitzen du, eta eraikin berria artean amaitu ezinda, nahiz eta gastuak sortzen segi.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** se refiere, al hilo del comienzo de la primavera, al largo invierno por el que ha atravesado el proyecto de Errebal y recuerda, que al comienzo de este mandato, cuando se votó la modificación del planeamiento urbanístico para poder dar cabida al nuevo edificio, el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV ya lo calificó como "la historia interminable". No obstante, con las elecciones locales en ciernes, la historia continúa, sin que se haya podido finalizar el nuevo edificio, aunque se siguen generando una serie de gastos.

Horren adibide, adierazi du munduko eraikin handiena —Pekingo aireportua— 4 urtean egin zela;

A modo de ejemplo, indica que el edificio más grande del mundo -el aeropuerto de Pekín- se construyó en

Errebalgo kasuan ez dago efizientzia-maila bera eskatzerik, baina 20 urte nahikoa eta sobera dira.

4 años; en el caso de Errebal no exige el mismo nivel de eficiencia pero entiende que 20 años son más que suficientes.

Bere iritziz, Udal honetan gobernuan daudenak mundu paralelo baten bizi dira eta errealitatearen disoziazio horren ondorioz udal bilkura 13:30ean deitzen dute; ordutegi hori ez da ez adostua ezta arrazoizkoa ere, kontuan hartuz gero zinegotzi askok zerbitzu publikoko beren eginkizuna lanarekin bateratzen dutela. Gai honi dagokionez, hitz ematen du, ezen bere taldearen esku badago, hurrengo agintaldian beste borondate bat egongo dela osoko bilkuretan eta udal gobernuan liberatuta egongo diren pertsonak gutxiago izango direla, hala, disoziazio hori amaitu dadin.

En su opinión, quienes gobiernan este Ayuntamiento viven en un mundo paralelo y esa disociación con la realidad les lleva a convocar un pleno a las 13:30 horas, horario no consensuado ni razonable habida cuenta de que son varios los concejales que compatibilizan su tarea de servicio público con su trabajo. A este respecto, asume el compromiso de que, si de su grupo depende, en el próximo mandato existirá otra voluntad en la convocatoria de las sesiones plenarias y se reducirá el número de personas liberadas en el gobierno municipal para acabar así con esa disociación.

Gogorarazi du duela hilabete bat onartu zela Errebalgo auzokideen plataformaren mozio bat, talde guztiek adostua, xede zuena argitzea kutxa publikoetatik zenbat diru erabili den Errebalgo proiektuan eta eratorritakoetan 1999tik hona, baina susmoa du helburu hori itxuraldatu nahi dela; ondorioz, ez da komenigarria teknizismoetan galtzea, betiere bete beharreko arauak errespetatuta. Baina

Recuerda que hace un mes se aprobó una moción de la plataforma vecinal de Errebal, acordada por todos los grupos, que tenía por objeto aclarar cuánto dinero de las arcas públicas se ha empleado en el proyecto de Errebal y sus derivados desde 1999 hasta hoy, pero sospecha que se está pretendiendo desvirtuar ese objeto; en consecuencia, no resulta conveniente

kontua da agintaldi honetan ordaindu egin irela Kontu-hartzailetzaren txostenean sartuta ez dauden gastu juridikoak edo kalte-galerak.

enredarse en tecnicismos, sin que ello suponga incumplir las normas a las que están obligados. Pero lo cierto es que a lo largo de este mandato se han abonado gastos jurídicos o indemnizaciones que no están incluidos en el informe de Intervención.

Hasieran, pentsatu zuten informazio hori guztia biltzeko lana erraza izango zela, PSE-EE udal taldearen bozermaleak adierazi zuen bezala, baina ia hilabete geroago, Batzordea hau eratzea baino ez ea lortuko. Esan duen bezala, helburua da zerrenda bat egitea jakin ahal izateko zenbat diru irten den guztira eibartarren poltsikotik, eta alderatzea hasieran aurreikusi zen proiektua eta azkenean egingo dena, dagoeneko identifikatuta dauden gastuak jasota eta beste batzuk hasieran antzeman ez zirenak.

En un principio, entendieron que la labor de recopilar toda esa información sería sencilla, tal y como indicó el portavoz del grupo municipal del PSE-EE, pero prácticamente un mes después únicamente se va a conseguir formar esta Comisión. Tal y como ha indicado, lo que se persigue es confeccionar un listado que permita conocer la cantidad total que ha salido del bolsillo de las eibarresas y eibarreses y comparar el proyecto que inicialmente se previó y el que finalmente resulte, incluyendo los gastos ya identificados y aquellos otros que en un principio no se pudieron detectar.

**Aguirre Unceta andreak** azpimarratu nahi du garrantzitsua dela Batzorde hau martxan jartzea lehenbailehen toki hauteskundeak laster izango direlako: halaber, uste du ezinbestekoa dela herritarren parte

La **Sra. Aguirre Unceta** desea destacar la importancia de la necesidad de que esta Comisión comience a funcionar cuanto antes debido a la proximidad de las elecciones locales: igualmente,

hartzea erraztea, eskubidea dutelako jakiteko zertan erabiltzen den diru publikoa.

considera imprescindible facilitar la participación de la ciudadanía dado que tiene derecho a conocer en qué se emplea el dinero público.

**Alkate-Udalburu jaunak** azpimarratu du hauxe izan dela haren edukia betetzen gehien ahalegindu diren mozioetako bat, izan ere, hura onartu eta hiru egunetara Bozeramale Batzarraren bilera bat deitu zen. Bere asmoa izan da udal talde guztiekin lan egitea, baina beharrezkoa da aurretik bidezkoak diren txostenak izatea.

El **Sr. Alcalde-Presidente** destaca que esta ha sido una de las mociones en la que más empeño ha puesto para que se cumpla su contenido, ya que tres días después de su aprobación se convocó una reunión de la Junta de Portavoces. Su intención ha sido trabajar junto con todos los grupos municipales, pero era necesario contar previamente con los informes necesarios.

Udalbatza honen deialdiari dagokionez, ahal izan zuen bezain laster, proposamen bat egin zuen, gero idazkari jaunak aldatu zuena Batzordeko kideen boto haztatuari buruzko puntuaren inguruan. Hala, baldintza guztiak bete ondoren, gaur zen bilera egiteko lehen egun posiblea, eta argitu du ez zuela atzeratu nahi izan agenda-arazoengatik. Alternatiba bakarra zen gai hau hurrengo ohiko bilkuran eztabaidatzea, baina ez zuen lortu oposizioaren taldeen konfirmazioa.

En lo que a la convocatoria de este Pleno se refiere, tan pronto como fue posible formuló una propuesta que posteriormente fue modificada por el Sr. Secretario en el punto relativo al voto ponderado de los integrantes de la Comisión. Así, una vez que se cumplieron todas las condiciones, el primer día posible para celebrarlo era hoy y aclara que no quiso retrasarlo a días posteriores por problemas de agenda. La única alternativa era debatir este asunto en la próxima sesión ordinaria, pero no obtuvo la confirmación de los grupos de la oposición.

Organoaren edukia dela-eta, eratu ondoren erabakiko da zer gai eta zeinen bertaratzeak eskatzen diren, baina hasieratik kontraesan batzuk ikusi ditu, izan ere, bada informazio ekonomikoa bakarrik eskatzen duenik, eta beste batzuek, berriz, bertaratzeak eta balorazio politikoak aipatzen dituzte.

En cuanto al contenido de este órgano, una vez constituido se decidirá qué temas y comparecientes se solicitan, pero desde el inicio observa algunas contradicciones puesto que hay quien únicamente solicita información económica mientras otros se refieren a comparecencias y valoraciones políticas.

Zehaztu du berak ez zuela pentsatu inoiz informazio hori lortzea erraza izango zenik, Kontu-hartzailearen txostenean pertsona baten kontratazioa eskatzean jasotzen den bezala.

Puntualiza que en ningún momento consideró que obtener esa información fuera sencillo, tal y como ha quedado acreditado en el informe del Sr. Interventor al reclamar la contratación de una persona.

Halaber, argi laga nahi du, aurreko Bilkuran esan zuen bezala, hilabeteko epea ia ezinezkoa dela azken txostena idazteko; nolanahi ere, bere taldea prest dago behar den lekuraino iristeko, ez baitago datu bakar bat ere azaldu ezin daitekeenik. Zorionez, Udal honi ikuskaritza egiten zaio etengabe. Bere ustez, proiektu honek sortutako gastuak hartu behar dira kontuan, baina baita zenbat diru ez den gastatu ere, hemendik aurrera kontakizun bateratu batetik abiatuta talde bakoitzak komenigarri deritzon balorazioa egin ahal izateko.

También desea dejar constancia que en el Pleno anterior ya manifestó que en el plazo de un mes era materialmente imposible redactar el informe final; no obstante, su grupo está dispuesto a llegar hasta donde haga falta ya que no existe ni un solo dato que no se pueda explicar. Afortunadamente, este Ayuntamiento se somete continuamente a auditoria entiende que hay que tener en cuenta los gastos generados por este proyecto pero también el dinero que se ha dejado de gastar, para, a partir de un relato común poder realizar la

valoración que cada grupo crea conveniente.

**Mendicute Rodríguez jaunak** eskatu du udalbatzara etorritako pertsonek parte hartu ahal izatea, behin bilkura amaitu ondoren. Jarraian, esan du ulertzekoa dela Alkate-Udalburu jauna bilkuran egon nahi izatea, baina Udalbatza 21 pertsonak osatzen dutela eta denak hartu behar direla kontuan deialdiaren eguna eta ordua ezartzeko.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** solicita que el público pueda intervenir una vez finalizada la sesión. A continuación, comenta que resulta comprensible que el Sr. Alcalde-Presidente desee estar presente en la sesión, pero el Pleno lo constituyen 21 personas y hay que contar con todas ellas a la hora de fijar la fecha y hora de la convocatoria.

Halaber, alderdi sozialistaren ohiko jarduera kritikatu du, zeren mozio bat onartzen baita gero hura ez betetzeko; dena den, uste du mozioaren edukia aurrera eraman daitekeela, onartu zen legez.

Así mismo, critica la que considera una práctica habitual del grupo socialista, ya que se firma y aprueba una moción para acto seguido advertir de su incumplimiento; de todas formas, cree que el contenido de la moción puede llevase a cabo tal y como se aprobó.

Kritikatzen du ez-gastuez eta aurrezkiez berba egitea, horixe bakarrik falta delako esatea, jarduketa modu horrek etekin ekonomikoa ekarri diola herriari.

Critica que se hable de no gastos o ahorros, ya que solo faltaría que se afirmase que esta forma de actuar ha generado una reversión económica a la ciudad.

Lehenago esan duen bezala, Informazio Batzorde Bereziaren helburua oso ondo zehaztuta dago, eta horrela jasotzen dute joan den hilean onartutako mozioaren 1, 2 eta 7 puntuek; eta berak hitz ematen du, bere

Tal y como ha indicado anteriormente, el objeto de la Comisión Informativa Especial está perfectamente definido, y así lo recogen los puntos 1, 2 y 7 de la moción aprobada el mes pasado,

taldearen izenean, eginahalak egingo dituela martxoaren 25ean dagokion txostena onartzeko.

comprometiéndose, en nombre de su grupo, a realizar el mayor esfuerzo posible para que el 25 de marzo se apruebe el informe correspondiente.

Berretsi du PSE-EE udal taldearen bozeramalea izan zela esan zuena datu-bilketa lan erraza zela, oposizioa ia "alfertzat" joz, informazio hori ez biltzeagatik. Dena den, adierazitako datarako egingo da zerrenda beharrezkoak diren datu guztiekin, baita hasieran zehaztuta ez zeudenak ere. Guztiarekin ere, Errebal Bizirik plataformari eskatzen dio Batzordearen xedeari buruzko edozein zalantza argitzeko.

Reitera que fue el portavoz del grupo municipal del PSE-EE el que afirmó que la recopilación de los datos era una labor sencilla, llegando prácticamente a calificar a la oposición como “vagos” por no recabar esa información. De todas formas, para la fecha indicada se elaborará el listado con todos los datos necesarios, incluidos aquellos que un principio no estaban determinados. No obstante, insta a la plataforma Errebal Bizirik a que aclare cualquier duda sobre la finalidad de la Comisión.

Azkenik, nahiko luke udal taldeen interbentzio-ordena kide-kopuruaren arabera egitea, izan ere, talde sozialista izaten da beti eztabaidak ixten dituena, edozein irizpide izanik ere.

Por último, desearía que se fijase el orden de intervención de los diferentes grupos municipales en función del número de sus integrantes, puesto que el grupo socialista siempre cierra los debates con independencia del criterio que se sigue.

**Alkate-Udalburu jaunak** gogorarazi du Informazio Batzorde Berezi hau eragin duen mozioa Euskal Herria Bildu udal taldeak aurkeztu

El **Sr. Alcalde-Presidente** recuerda que la moción de la que trae causa esta Comisión Informativa Especial la presentó el grupo

zuela, auzokideen plataformaren testua bere egin ondoren; eta mozioa erregistratu ondoren, gainontzeko udal taldeek izenpetu zutela. Hori esanda, begien bistan utzi du jakinekoa dela zein den mozioek duten lege-derrigortasun maila; halaber, azpimarratu du mozioen xedapen-atalak bereizita bozkatzeko aukera ere badagoela ez bago adostasunik haren punturen batean.

Bere taldearen iritziz, garrantzitsuena ez da zer epetan amaitu behar duen Batzordeak bere lana, gaiaren mamia baizik; izan ere, badago Kontu-hartzailearen txosten bat —Eibarko EAJ-PNV udal taldearen oraingo honen antzeko mozio baten inguruan egindakoa— 6 hilabeteko epeaz hitz egiten duena. Dena den, ez du arazorik ikusten joan den hilean onartutako mozioari buruz Kontu-hartzailetzari beste txosten bat eskatzeko, baina bere ustez nahikoa zen lehenengoa.

Beraz, normaltzat jotzen du ia hilabete igaro izana izapideak betetzen, baina errepikatu du bere taldearentzat garrantzitsuena onartutakoaren mamia eta, hala, gaiari buruzko kontakizun historiko bat lortzea. Beste kontu bat da beste talde batzuek datu

municipal de Euskal Herria Bildu tras asumir el texto de la plataforma vecinal, moción que, una vez registrada fue suscrita por los demás grupos municipales. Dicho lo cual, pone en evidencia el grado de obligatoriedad legal que implican las mociones, a la par que resalta la posibilidad de votar separadamente la parte dispositiva si no se comparte algún punto de la misma.

En opinión de su grupo, lo sustancial no es el plazo en el que la Comisión debe culminar su trabajo sino el fondo del asunto, puesto que ya existe un informe del Sr. Interventor a raíz de una moción similar del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV que habla de un plazo de 6 meses. De todas formas, afirma que no ve inconveniente alguno en solicitar un nuevo informe de Intervención sobre la moción aprobada el mes pasado, aunque entendía que el primero de ellos ya era suficiente.

Por tanto, considera normal que haya transcurrido prácticamente un mes en el cumplimiento de los trámites, pero insiste en que para su grupo lo importante es el fondo de lo aprobado y poder conseguir así un relato histórico sobre este. Cuestión

ekonomikoak bildu nahi izatea datorren maiatzean aurkezteko.

bien diferente es que otros grupos pretendan recopilar una serie de datos económicos para poder presentarlos el próximo mes de mayo.

**Errasti Bernedo jaunak** berretsi egin ditu alkate-udalburu jaunaren hitzak mozioaren jatorriari buruz, eta esan du inpresioa duela udal talde bakoitzak interpretazio desberdina duela mozioak dakarrenari buruz, zeren eta kontua bada Ikerketa Batzorde bat eratzea, idazkari jaunaren txostenean jasotako argibideei jarraituta egin beharko baita; ostera, nahi dena baldin bada soilik gastuak aztertzea, agian ez da beharrezkoa izango horrela deitzea.

El **Sr. Errasti Bernedo** confirma las palabras del Sr. Alcalde-Presidente sobre el origen de la moción y expresa su impresión de que cada grupo municipal posee una interpretación distinta sobre lo que aquella supone, ya que, si se trata de crear una Comisión de Investigación habrá que hacerlo de acuerdo con las indicaciones contenidas en el informe del Sr. Secretario; en cambio, si lo que se pretende es simplemente analizar los gastos quizás no sea necesaria denominarla así.

Halaber, uste du talde bakoitzak bere erara interpreta dezakeela zer balio daukan azken urteotan proiektu honetan gastatutako 20 milioi euroko kostuak.

También considera interpretable el valor que para cada cual tiene el coste total de 20 millones de euros que ha supuesto este proyecto a lo largo de los últimos 20 años.

**ALKATETZAREN PROPOSAMENA.**

**PROPUESTA DE ALCALDÍA**

2019ko otsailaren 25ean izandako ohiko Osoko Bilkurak aho

Vista la moción aprobada por unanimidad en el Pleno Ordinario

batez onartu zuen mozioa ikusita eta Udal Kontu-hartzaileak eta Udal Idazkariak egindako txostenek jasotakoa kontuan hartuta, Osoko Bilkura hartan erabakitakoa betetzeko xedez eta esandako txosten horietan ezarritako lege-esparru horren barruan,

celebrado el pasado 25 de febrero de 2019, y teniendo en consideración los informes emitidos tanto por el Interventor Municipal como por el Secretario Municipal, al objeto de cumplir lo acordado en el citado Pleno, y en el marco legal establecido en los informes mencionados,

Udalbatzak, aho batez, honako akordio hau hartzen du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente

**ERABAKIA**

Errebali buruzko Informazio Batzorde Berezia sortzea.

Batzordea hauekin osatuko da:

- Lehendakaria: Erakundearen alkatea.

- Udal talde bakoitzaren ordezkaria gainerako Lan Batzordeetarako ezarritakoaren arabera, ordezkoa ere izendatuta. Udal taldeei galdetu ondoren, proposamena hauxe da:

**ACUERDO**

Crear una Comisión Informativa Especial sobre Errebal.

La misma estará compuesta por:

- Presidente: Alcalde de la Institución.

- Representación de cada grupo municipal conforme a lo establecido para el resto de las Comisiones de Trabajo, con nombramiento de suplente. Girada consulta a los grupos municipales, la propuesta es la siguiente:

- **Eibarko PSE-EE:** Arcadio Benítez, Ana Tellería eta Jon Iraola. Ordezkoa: Pedro Escribano.
- **Eibarko EH-Bildu:** Gorka Errasti eta Igone Lamarain. Ordezkoa: Iñaki Penedo.
- **Eibarko EAJ-PNV:** Josu Mendicute eta Mertxe Garate. Ordezkoa: Elena Ibáñez.
- **Irabazi-Ganemos Eibar:** María Jesús Aguirre.

- Idazkaria: Udalbatzaren idazkaria.

Batzordearen funtzionamenduari dagokionez, jendearentzat irekia edo zabala izango da.

Batzordearen funtzionamendu-arauak Udalean lehendik dagoen beste edozein batzorderen antzekoak izango dira; eta berariazko akordioak hartuko ditu hirugarren interesdun batzuen partaidetza ahalbidetu eta informazioa errazteko.

Proposamen honetan jasotzen ez den guztirako Udalaren araudi

- **PSE-EE de Eibar**: Arcadio Benítez, Ana Tellería y Jon Iraola. Suplente Pedro Escribano.
- **Eibarko EH-BILDU**: Gorka Errasti e Igone Lamarain. Suplente Iñaki Penedo.
- **Eibarko EAJ-PNV**: Josu Mendicute y Mertxe Garate. Suplente Elena Ibáñez.
- **Irabazi-Ganemos Eibar**: María Jesús Aguirre.

- Secretario: El Secretario de la Corporación.

En cuanto al funcionamiento de la Comisión, la misma tendrá carácter abierto al público.

Sus reglas de funcionamiento serán similares a las de cualquier comisión preexistente en el Ayuntamiento, debiendo adoptar acuerdos expresos que permitan y faciliten la participación y la información a terceros/as interesados/as.

En lo no recogido en esta Propuesta, será de aplicación la normativa específica del

espezifikoa edo Udalaz gaindikoa aplikatuko da, hala bada kasua.

Ayuntamiento o la de rango superior en su caso.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta arratsaldeko zortzi eta erdiak izanik, Alkate jaunak bilera altxatzen du, guzi honetaz, nik Idazkari Orokorrak fede ematen dudalarik.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las catorce horas, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

Miguel de los Toyos Nazabal

IDAZKARIAK / EL SECRETARIO

Juan Agustín Villafranca Bellido